

## / Nabarmentzekoak

- > Euskararen erabilera gizarteratzen jarraitzeko hitzarmenak sinatuta (2. or.)
- > Getxoarte 2021k naturari lotutako haur eta gazteentzako tailerrak hartuko ditu (4. or.)
- > Mikel Bildosola igerilariak Europako eta estatuko markak hautsi ditu 100 m-tan (4. or.)

Martirio eta Chano Domínguez, eta Benavent-Di Geraldo-Pardo hirukotea, Niño Joselerekin batera, Getxo Jazz 2021ean (3. or.)



**Liburuaren hila.** Hilak 21, asteazkena, solasaldia, Romo Kultur Etxean, eta mahai-ingurua, Muxikebarrin. Hilak 22, osteguna, mahai-ingurua, Romo Kultur Etxean.

**BERTAN BEHERA** geratu da Isabel Reyren errezitaldi lirikoa, gaixotasunagatik.

**A-**  
GENDA

Eskaerak aurkezteko epea zabalik apirilaren 26ra arte

## Eusko Jaurlaritzak Iturribarrin babes sozialeko 91 etxebizitza alokairuan esleitzeko prozedura abian jarri du

Datorren astelehenera, apirilaren 26ra arte aurkeztu ahal izango dira Iturribarrin babes sozialeko 91 etxebizitza alokairuan esleitzeko prozeduran parte hartzeko eskabideak, Udalak eta Eusko Jaurlaritzaren VISESA sozietate publikoak 2017an sinatutako hitzarmenaren ondorioz. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian pasa den astelehenean argitaratu zenez, 91 etxebizitzetatik hiru logelako 4, 98,25 eta 120,00 m<sup>2</sup> arteko azalerarekin, mugikortasun urri iraunkorra duten pertsonentzat egokituta daude. Gainontzeko 87 etxebizitzetatik, 16 logela bakarrekoak dira (36,73 eta 52,48 m<sup>2</sup> artekoak); 54 bi logelakoak (54,90 eta 69,93 m<sup>2</sup> artekoak); 16 hiru logelakoak (78,68 eta 89,98 m<sup>2</sup> artekoak), eta etxebizitza bat lau logelakoa (100,38 m<sup>2</sup>-koarekin).

### Baldintzak eskatzaileentzat

- Etxebiden alokairuko eskatzaile gisa Getxoko udalerrirako altan egotea edo Bilbao Metropolitarrako udalerrri baterako.
- Agindu hau argitaratzen denean Getxon erroldatuta egon behar da gutxienez bizikidetza unitateko titularretako bat gutxienez azken 3 urtez etenik gabe, edo, bestela, azken 10 urteetan, tarteka, 5 urte egon dela erroldatuta.
2019. urteko zergaldiko diru-sarrerara haztatuak 3.000 eta 25.000€-artekoak izatea. Mugikortasun murriztuko desgaitasuna duten pertsonak, desgaitasun psikikoa dutenek edo genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek ez dute gutxienezko diru-sarrerarik egiaztatu behar, ez eta etxebizitza bat izateko eskubide subjektiborako eskubidea onartuta dutenek ere.
- Etxebizitza jabetzan, azalera eskubidean edo gozamenean ez eduki izana Agindua argitaratzen den eguneko aurreko bi urteetan, legea-



ren salbuespenetarako izan ezik.

### Kupoak

Esleitu beharreko etxebizitzetatik hurrengo kupoak gordeko dira:

- 4 etxebizitza egokituko dira mugikortasun urri iraunkorreko desgaitasuna duten pertsonentzat.
- 87 etxebizitza gainerako eskatzaileen artean banatuko dira kupo hauek errespetatuta:
  - 35 etxebizitza (esleitu diren % 40) bizikidetza-unitatearen titularretako bat gutxienez 36 urtetik beherakoa den kasuetarako.
  - 13 etxebizitza (% 15) etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko eskubide subjektiboa duten pertsonentzat.
  - 18 etxebizitza (% 21) etxebizitza-premia berezia dutenentzat.

### Berriro eremu gorrian

Badakigu pandemia luze izaten ari dela eta nekagarria ere bai, baina ez dugu pazientzia galdu behar. Oporraldi hauek eta ospakizunek ez dute gure alde egiten. Egoera zailtzen ari zaigu pixkanaka pixkanaka baina txertaketa prozesuak aurrera egiten du. Eta batez ere, mesedez, ez ahaztu: muxukoa, eskuak garbitu eta distantzia soziala mantendu dezagun. Hori da egin dezakeguna. Hiru akzio sinple eta errazak dira, eta horrek guztioi lagunduko digu. Eskerrik asko.

Amaia Agirre alkatea



– 21 etxebizitza (% 24) gainerako eskatzaileentzat.

### Eskaerak barematzeko irizpideak

10 puntu emango zaizkie 0 eta 9.000€ bitarteko diru-sarrerak dituzten eska-tzaileei; 9 puntu, 9.001 eta 15.000€ bitartekoei; 8 puntu, 15.001 eta 25.000€ bitartekoei, eta 5 puntu 25.001 eta 39.000€ bitartekoei. Bizikidetza-unitateko kide kopurua, antzinatasuna etxebizitza-eskatzaileen erregistroko inskripzioa eta etxebizitza-premia berezia ere baloratuko dira. Bi logelako etxebizitzak gehienez 4 kideko bizikidetza unitateei esleitu-ko zaie, hiru logelakoak gehienez 6 kide dituzten bizikidetza-unitateei, eta lau logelakoak zazpi kide edo gehiagokoei.

Onartutako eta baztertutako enpresen zerrendak, etxebizitza-esleipenak eta itxaron-zerrendak hurrengoan argitaratuko dira: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) > [egoitza elektronikoa](http://www.euskadi.eus) > [iragarki taula](http://www.euskadi.eus).

### Eskaerak aurkezteko tokia

Etxebidek baldintzak betetzen dituzten pertsonen postaz, emailez... bidaliko dien eskaera hurrengo tokietan aurkeztu ahal izango da:

– Aurrez aurre: Zuzenean-en (aurrez hitzordua hartuta), Kale Nagusia 85, beheko solairua, 48011-Bilbao.

– Postaz: Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzan, Kale Nagusia 85, 6. solairua, 48011-Bilbao.

– Telematikoki: <http://www.etxebide.euskadi.eus>

– Algortako (Torrene) eta Aretako (Las Mercedes 13) Herritarren Arretarako Bulegoetan, aurretik hitzordua eskatuta 94 662 00 99 telefono zenbakian. Ohiko inprimaki batean ere bete ahal izango da eskaera, hurrengo ipiniz: espediente-zenbakia eta Iturribarriko promozioari dagokion EB2-1738/17-EP-000.

Informazio guztia: 2021eko apirilaren 12ko EHAAn, 70 zenbakian, eta <https://www.getxo.eus/es/vivien-da/promociones/6>



## APIRILAK 15 OSTEGUNA

**Liburuaren Hila. Ipuinaren ordua.** Romoko liburutegian, 18:00etan, "Azken balea", Modesto Kapitainarekin. Euskaraz. 4 urtetik gora. Sarrera dohainik.

**Zinemabarrri.** Muxikebarrin (Areea aretoa), 18:00etan, David Pérez Sañudo "Ane" filma eta foruma. 12 urtetik gora. 3,50€.

## APIRILAK 16 OSTIRALA

**Zine-kluba.** Romo Kultur Etxean, 18:00etan, Jeanne Herryren "EN buenas manos" filma eta foruma. 12 urtetik gora. 3,50€.

**Liburuaren hila.** Kontularien Kluba. Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, ipuin-kontalaria izan edo entzun nahi duten nagusiez osatutako taldearen saioa. Sarrera dohainik.

**Kontzertua.** Muxikebarrin (Ereaga aretoa), 19:00etan, Silvia Pérez Cruz, "Farsa, género imposible". Sarrerak agortuta.

**Kontzertua.** Amorante, 19:00etan, Azebarri Kultur Elkartearen (Euskal Herria, 14, Algorta). Gonbidapenak: [www.azebarri.eus](http://www.azebarri.eus)

## APIRILAK 17 LARUNBATA

**Kontzertu liriko dramatizatua.** "Cómo ser soprano y no morir en el intento", Miren de Miguel abeslariarekin, 19:30ean, Areetako Andres Isasi Musika Eskolako auditorioan. 5€.

**Kafe tertuliak.** 18:00etan, online zoomen bidez. Gonbidatua: Fernanda Olivar. Gaia: "Afrodescendencia. Maternidades racializadas: Entre experiencias y desafíos". Izena emateko: <http://bit.ly/CafésConversatorios2021>. Zalantzak: Whatsapp: 655 60 38 09. Antolatzailea: Mujeres con Voz.

**Ingurumen Aretoa.** 10:30-13:30. Yinkana autogidatua 2.0 eta "Naturaren detektibeak" (6 urtetik aurrera), "Esploratzaile txikiak" (3 urtetik aurrera). [www.ingurumenaretoage-txo.eus](http://www.ingurumenaretoage-txo.eus)

## APIRILAK 18 IGANDEA

**Zinematikiki.** Muxikebarrin (Areea aretoa), 12:00etan, "Los Elfkins". Adin guztientzat. Sarrera: 2,50€.

**Igandeko haur zinea.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "El reino de los elfos". Adin guztiak. 2,50€.

**Dantza.** Muxikebarrin (Arrigunaga aretoa), 19:00etan, Input Danzaren eskutik, "Nosotros". Sarrera: 8€.

**Ingurumen Aretoa.** 10:30-11:45 eta 12:15-13:30. Orientazio-jarduera berria. Bizikletaz etorri gerri jhamaketako doan! [www.ingurumenaretoage-txo.eus](http://www.ingurumenaretoage-txo.eus)

## APIRILAK 19 ASTELEHENA

**Odol-emate.** Algortako Geltokia plazan, goizez eta arratsalde.

## APIRILAK 21 ASTEAZKENA

**Liburuaren Hila. Solasaldia.** Romo Kultur Etxean, 18:00etatik 19:00etara, "Iraganaz gozatzea birritan bizitza da", Getxoko istorio, gertakizun eta pertsonen buruzko

solasaldia. Udal liburutegien argazkiekin irudiztatuta. 60 urteko gorakoentzat. Aurretiko izen ematea: 94 466 00 22. **Mahai-ingurua.** Muxikebarrin (Arrigunaga aretoa), 19:00etan, "La soledad en un mundo hiperconectado", Txani Rodríguez, Goizalde Landabaso eta Harkaitz Canoren eskutik. Moderatzailea: Josune Muñoz (Skolastika). Muxikebarriko Informazio Bulegoan eta txarteldegian eta Romo Kultur Etxean jaso beharreko gonbidapenez.

**IdaZale Gazteen Txokoa.** Gazteek idazten hasteko tailerra, Garazi Basterretxeak gidatuta. 7:30ean Algortako Aldai Patronatuan. Doan, Egizuk antolatuta. Informazioa: 619 935 541 / [egizugetxo@gmail.com](mailto:egizugetxo@gmail.com)

## APIRILAK 22 OSTEGUNA

**Odol-ematea.** Areetako Geltokia plazan. Goizez eta arratsalde.

**Liburuaren Hila. Mahai-ingurua.** Romo Kultur Etxean, 19:00etan, "Alabatasuna, ahizatasuna eta beste tasun batzuk", Karmele Jaio, Miren Agur Meabe eta Miren Amurizaren eskutik. Moderatzailea: Josune Muñoz (Skolastika). Muxikebarriko Informazio Bulegoan eta txarteldegian eta Romo Kultur Etxean jaso beharreko gonbidapenez.

**Zinemabarrri.** Muxikebarrin (Areea aretoa), 18:00etan, Maite Alberdiren "El agente topo" film luzea eta foruma. Adin guztientzat. Sarrera: 3,50€.

## APIRILAK 23 OSTIRALA

**BERTAN BEHERA** geratu da Isabel Reyren errezitaldi lirikoak, gaixotasunagatik.

**Kontzertua: Meraki laukote.** 19:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, ganbera musika kontzertua, Meraki hari-laukotearen eskutik. Sarrera dohainik edukiera bete arte.

**Zine-kluba.** Romo Kultur Etxean, 18:00etan, César Díazen "Nuestras madres" filma eta foruma. 12 urtetik gora. 3,50€.

## APIRILAK 24 LARUNBATA

**Ipuin kontaketa: Storytime.** Romo Kultur Etxean, 11:00etan, "Farmyard", Kids&Us Getxo-Algortaren eskutik. Ingelese. Familia osoarentzat. Sarrera gonbidapenez: [getxo@kidsandus.es](mailto:getxo@kidsandus.es) / [algorta@kidsandus.es](mailto:algorta@kidsandus.es). Edukiera mugatuta.

**BERTAN BEHERA Jazz kontzertua (Pío Lindegaarden omenez).** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, Dena DeRose Trioren eskutik.

**Ingurumen Aretoa.** 10:30-11:45 eta 12:15-13:30. Itsasoari buruzko bildutako jolasak (3 urtetik gora). [www.ingurumenaretoage-txo.eus](http://www.ingurumenaretoage-txo.eus)

## APIRILAK 25 IGANDEA

**Haur ikuskizuna.** Muxikebarrin (Ereaga aretoa), 16:30ean eta 19:00etan, "Amaren intxaurrak", Pirritx, Porrotx eta Marimototsen eskutik. Sarrerak agortuta.

**Zinematikiki.** Muxikebarrin (Areea aretoa), 12:00etan, "Vicky el vikingo y la espada mágica". Adin guztientzat. 2,50€.

**Ingurumen Aretoa.** 10:30-11:45 eta 12:15-13:30. Txiki tailerra: basoko elementu naturalekin egindako artea (3 urtetik gora). Apirilak 22 Ama Lurraren Nazioarteko Eguna. [www.ingurumenaretoage-txo.eus](http://www.ingurumenaretoage-txo.eus)



Bizarra Lepoan, Egizu, ALBE eta Hiruka entitateekin

# Euskararen erabilera gizarteratzen jarraitzeko hitzarmenak sinatuta

Udalak euskararen erabilera gizarteratzen jarraitzeko lau hitzarmen sinatu berri ditu Bizarra Lepoan, ALBE, Egizu eta Hiruka entitateekin.

Hitzarmenetan hurrengo lau urteotarako helburu, neurri, ekintzak eta diru-laguntzak zehazten dira. "Hitzarmenak euskararen erabilerearen aldeko konpromisoa eta gizarte eragileekin elkarlanean aritzeko dugun nahia erakusten ditu, eta horiei eskertu nahi diegu azken urtean beren jarduerarekin jarraitu ahal izateko egin duten esfortzua", adierazi zuen Amaia Agirre alkateak pasa den apirilaren 13an, hitzarmenen sinatze ekitaldian.

Goizane Miruri, Bizarra Lepoan elkarteko lehendakariak; Ziortza Merino, Hirukako kudeatzaileak; Miren Loizaga, ALBEko lehendakariak eta Josu Esnaola, Egizuko lehendakariak, nabarmendu zuten hitzarmenek udalarekin dagoen

elkarlana eta euskararen aldeko eragileen helburu amankomunak irudikatzen dituztela.

Bizarra Lepoan elkarteak euskararen erabilera indartzeko kultura ekintza antolatzen eta euskaltzaleen indarrak batzen jarraituko du, besteak beste, Gehitu Kultura eta Gehitu Kirola egitasmoak birmoldatzen, eta Bapiruke, Toponimia Ibilbideak, unean uneko ekitaldiak (Euskaraldia) aurrera eramaten. Azken berritasuna Bizkaiera ikastaroa izan da. Aurten 82.800€-ko diru-laguntza jasoko du.

Eskualdeko komunikazioa zabaltzen duen Hiruka kooperatiba, COVIDaren eraginez teknologia berriei eta sare sozialei garrantzi handiago eman die azken garaian. 64.601€ eskuratu ko ditu, aldizkaria eta atari

# Getxoko enpresa batek maskarak birziklatuko ditu erregai bihurtzeko

Getxoko Nantek enpresak, Orka Gipuzkoako hondakin bilketarako enpresarekin batera, masiboki erabilitako maskara kirurgikoak osorik birziklatzeko ekonomia zirkularreko sistema berritzaile bat garatu du, COVIDen osasun-alerta hasi zenetik.



Nantek Getxon sortu zen 2019an, eta mota guztietako plastikoak birziklatzen eta balio erantsiko pro-

digitalaren gastuetarako.

ALBE Algortako Bertso Eskolak plazak berreskuratzeke asmoa du segurtasun neurri guztiak hartuta, azken urtean ekitaldi ugari online egin behar izan ondoren. 52.000€ko laguntza jasoko du bertsoaritzan (Abra Sariketa, Eskolatik Plazara, Balkoitik Balkoira, Bertso Jaialdi Mundiala, Ahobien Gala, bertso saioak...) sustatzen jarraitzeko.

Azkenik, Egizuk euskararen erabilera bultzatzen jarraituko du, ohiko ekitaldiekin (Berbalaguna, Mintzakuadrillak, Berbodromoa, Beharsarea, Irakurzaileen Txokoa...). Azken hilabeteotan, lan handia egiten ari da eskal literatura eta sorkuntzaren inguruan. Udalak 42.000€ko diru-laguntza emango dio.

duktu petrokimiko bihurtzen espezializatu da, hondakin plastikoaren erabilera zirkularra sortuz eta hondakindegia betetzea saihestuz. 2020an Impact Emprendedor XXI saria jaso zuen. Gaur egun, plastikoak eta maskarak birziklatzeko planta bat eraikitzen ari da Zamudion. Urtean 500 tona tratatzeko ahalmena du, eta datorren abenduan martxan jartzea espero da.

Maskarak jasotzeko eskaera egin nahi duten partikularrek, enpresek edo erakundeek honako orri honetan egin behar dute: <https://reciclamascarilla.com/>

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF >

Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitza-erantzuleen laguntza eta informazioak agerian dira. Komunikazioko zinegotzia: Ainhoa Galduroz. Zuzendaria: Javier García. Erredaktoreburua: Itziar Aguayo. Erredakzioa: Nekane Ardanza.

Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urdul kalea z.g., 4. Tel.:94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: [getxokoudalarentsa@getxo.eus](mailto:getxokoudalarentsa@getxo.eus) Arte arduradunak: Bostnan Bilbao, S.L. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Lantegi Batuak Fundazioaren egunOn zerbitzua. Gordailu legala: BI-388-87

# Martirio eta Chano Domínguez, eta Benavent-Di Geraldo-Pardo hirukotea, Niño Joselerekin batera, Getxo Jazz 2021ean

Pandemia dela eta, urtebete hutsik egon ondoren, Getxo Jazz jaialdia jatorri hurbileko talde eta artistek markatutako programa batekin itzuliko da. Ekainaren 30etik uztailaren 4ra, jaialdiak 44. edizioa beteko du, eta, mugikortasunaren mugagatik, estatubatuarren kontratazioa ahalbidetuko ez duen proposamen bat aurkeztuko du. Horregatik, geografikoki hurbilagoak diren proiektuetara itzuliko da, baina ohiko kalitatea eta aniztasuna baztertu gabe. Jaialdia indarrean dagoen osasun-araudia zorrotz betez gauzatuko da, edukiera mugatuko esparruetan.

Ordainezko proposamenari dagokionez, kontzertu nagusiak Muxikebarrin izango dira, 19:00etan, eta dagoeneko bi izen baieztatuta dituzte. Horrela, uztailaren 3an, Huelvako Martirio abeslariak eta Chano Domínguez pianista cadiztarrek osatutako bikotea arituko da berriro, oraingo honetan Ignacio Villa *Bola de nieve* kubatar konpositore, pianista eta abeslariari omenaldia eginez. Azken hori hispaniar hizkuntzako herrialdeetako ikonoa da, eta umorez apaindutako letra erromantikoak zituen ezaugarri.

Jaialdiaren azken egunean, Muxikebarrin jazz espainiarraren eskarmentu handiko hiru artista bilduko ditu, Niño Josele gitarra-jotzaileak lagunduta, bere azken proiektua publikoari gerturatzeko. Carles Benavent, Tino Di Geraldo eta Jorge Pardo jazz flamenkoaren izen handiak dira, eta, besteak beste, Paco de Lucía, Camarón de la Isla eta Chick Corea musikariekin kolaboratu dute.



## Gainontzeko programazioa

Goizeko ordutegian, 13:00etan, Talde Lehiaketaren saioak egingo dira. Horietan aurreko ediziorako hautatutako taldeak bilduko dira, izaz parte hartu ezin izan zutenak ekitaldia bertan behera geratu zelako. Halaber, doako eskaintza berreskuratuko da Hirugarren Milurtekoa atalaren eskutik. Sail horrek talde gazteak baina aldi berean jazz panoraman ibilbi-

dea dutenak ditu ardatz. Horien kontzertuak Algortako Biotz Alai abesbatzaren plazan egingo dira, egoerak horrela ahalbidetzen badu, 17:00etan. Horrez gain, uztailaren 3an eta 4an, 13:00etan, familiatzako goizeko emanaldiak egingo dira leku berean.

## Sarrerak

Sarrerak datorren astelehenean, apirilak 19, jarriko dira salgai Mu-

xikebarrin, Romo Kultur Etxean eta Kutxabank sarean. Oraingo honetan, emanaldien ordutegia berregituratu denez, bi bonu izango dira: Talde Lehiaketaren emanaldietarako (20 €) eta kontzertu nagusietarako (60 €). Biotz Alai abesbatzaren plazako saioei dagokionez, Kultur Etxeak laster jakinaraziko du noiz hasita eta non jaso ahal izango diren gonbidapenak.


**\*Sarrerak itzultzea eta Dena DeRose Trioren kontzertua bertan behera.** Osasun-egoeraren larritzea eta mugikortasun murrizketak direla eta, Dena DeRose Trio taldearen kontzertua bertan behera geratu da. Apirilaren 24an (larunbata) Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan programatuta zegoen. Horrez gain, mugikortasun-murrizketen eraginpean dauden pertsonak, udalerrian antolatutako ikuskizunetara edo kultura-ekitaldietara joaterik ez badute, ikuskizun horietarako sarreraren zenbatekoa itzultzeko eskatu ahal izango dute Kultur Etxearekin harremanetan

jarrita: 94 466 01 23 telefonoaren edo [sarreraitzulketa@getxo.eus](mailto:sarreraitzulketa@getxo.eus) bitartez, erosketa egin duen pertsonaren izen-abizenak adieraziz eta sarreraren artxiboa/irudia erantsiz. Saio horietarako sarrerak online zein Kutxabanken orotarako kutxazainen bitartez erosi dituztenek ezer ere egin gabe jasoko dute diru-itzulketa datozen egunetan. Eskudiruz edo datafonoz ordaindu dutenak, beriz, Muxikebarrin txarteldegira joan beharko dira dirua eskatzeko, honako ordutegi honetan: 10:00-13:00 eta 17:30-19:30. Itzultitako sarrera guztiak berriro jarriko dira salgai.



## “Sarrerak agortuta” kartelarekin iritsiko da Silvia Perez Cruz Getxora

Muxikebarrin izango da ostiral honetan, hilak 16, 19:00etan, Silvia Perez Cruzen *Fartsa* (genero ezinezkoa) kontzertua. Egungo abeslari indartsu honen disko berria beste diziplina artistiko batzuekiko elkarriketan sortutakoa da, hala nola antzerkia, dantza, zinema, poesia edo pintura. Bere gitarrarekin eszenan bakarrik, espazio intimo, gordin, zuri-beltzeko bat sortu nahian, publikoarekin elkarriketa zuzena eta iragazkirik gabekoa eskaintzen digu. Kontzerturako sarrerak agortuta daude.



## Input Danzak “Nosotros” muntaia aurkeztuko du Muxikebarrin

Datorren igandean, hilak 18, 19:00etan, Muxikebarrin *Nosotros* muntaiaz gozatzeko aukera izango da, Input Danza taldearen eskutik. *Nosotros* dantza garaikideko bikotea da, Aiala Etxegaraik eta Edoardo Ramirezek koreografiatua, eta Madrilgo dantza kontserbatorioan elkar ezagutu zuten egunetik bizi izan duten prozesua kontatzen du. Proiektu honekin zuten interes nagusia, elkarrekiko hizkuntza bat sortzea zen, profil oso desberdineko bi dantzarietako batek ere bere berezitasuna galdu gabe. Sarrera: 8€.

# Getxoarte 2021k naturari lotutako haur eta gazteentzako tailerrak hartuko ditu bertoko artisten eskutik

Apiriletik maiatzera, Getxoarte 2021eko Bitartekaritza eta Egoitza Programaren barruan, asteburuko lau tailer egingo dira, bertako artisten eskutik, haur eta gazte getxotarren artean sormena suspertzeko helburuarekin. Guztiak doakoak dira, euskaraz eta gaztelaniaz, eta plazak, mugatuak. Ekimen hori apirilaren 17an, larunbata, abiatuko da Merce Zulueta eskutik, naturan eginiko arte tailerarekin. 7 eta 12 urte bitarteko hau-

rei zuzenduta dago eta 12:00etatik 13:30era izango da Arrigunaga hondartzaren inguruan. Tailer honen bitartez haurren eta naturaren arteko interakzioa bilatu nahi du artistak. Hurrengo astean, apirilaren 24an, Mertxe Perizek *Paisaia izan* haurrentzako tailerra zuzenduko du, 12:00etatik 13:30era Romo Kultur Etxean. Paper gainean tamaina handiko pintura bat sortzeko prozesua egingo da, txantilo gisa elementu naturalak erabiliz: harriak, adarrak,

hostoak...

Bestalde, maiatzaren 8an, Marta Iraurgik *Argazki ibilbideak* irteera gidatuko du, 13 eta 18 urte bitarteko gazteentzat. Ekitaldia Algortan izango da, 11:00etatik 13:30era (Arrigunaga hondartzako sarreran izango da topagunea). Horren helburua da argazkilari gazteei bertako paisaia hurbiltzeko eta xehetasun berriak ezagutzeko aukera ematea.

Azkenik, zikloa maiatzaren 15ean amaituko da *Pintura-paisaia-argazkia* tailerarekin, Mikel Erkiagaren eskutik. Romo Kultur Etxean egingo da 12:00etatik 13:30era eta 13 eta 18 urte bitarteko gazteei ere zuzenduta dago. Margolariak argazki-begiradaren bidez pinturan murgiltzea proposatzen du, Marta Iraurgirekin egindako irteeran jasotako argazkiak eta parte-hartzaileen argazkiak oinarri hartuta, Getxoko ingurune naturala pinturan islatzeko. Izena eman eta informazioa eskatzeko [getxoarte@getxo.eus](mailto:getxoarte@getxo.eus) e-mailera idatzi behar da.



## Garrobiren "Geroa(k)" deialdi artistikoa

Garrobik, Getxoko artisten harrobia, deialdi berri bat argitaratu du, edozein diziplina eta lekutako artistei zuzendua.

*Geroa(k)-Futuro(s)* leloarekin, lanak edozein formatutan aurkeztu ahal izango dira. Artistek Garrobik [www.garrobi.com](http://www.garrobi.com) webgunean argitaratu duen Probokazio-Multzoko irudi bat aukeratu eta artista bakoitzak proposatzen duen lanarekin lotu (harreman irekia) beharko dute. Lanak etorkizuneko planteamendu bati erantzungo dio. Deialdiaren helburua da "orainaldi konfinatu eta pandemiko honetatik abiatuta, etorkizuneko mota desberdinak proposatzen dituzten erantzunak eragitea".

Hautatuak izanez gero, bi euskarritan argitaratuko dira: *La Fanzine Geroa(k)* argitalpeneko paper inprimatuan, koloretan eta agertokian, zuzeneko publikoarekin, 2021eko ekainaren 12 edo 13an Romo Kultur Etxearen egingo den *Garranblada Geroa(k)*-en parte izanik, baimendutako ordutegiak eta edukiera errespetatuz.

Informazio gehiago eta deialdiaren oinarriak: [www.garrobi.com](http://www.garrobi.com)



## KIROLAK

### Mikel Bildosolak Europako eta estatuko markak hautsi ditu 100 metrotan

Getxo Swim Camp elkarteko Mikel Bildosola igerilariak, alde zuzen berak zuen Europako errekorra (bi aste lehenagotik zuen marka) hautsi zuen 100 metro Libreetan, Castellón jokatu den Espainiako Neguko Open Masters Txapelketan, hamabi ehunenetan hobetuz (50" 13 ehunen). Aurreko Espainiako 100 metro Estiloetako errekorra ere gainditu zuen (57" 78 ehuneko da marka berria), bi markak 35-39 urte bitarteko kategorian. Mikel Bildosolaren urrezko bi dominez gain, Getxoko taldearen ordezkariak domina gehiago lortu zituen Espainiako Neguko Master Txapelketa honetan: urrezko sei, zilarrezko bat eta brontzezko bat.



### Espainiako errekor berria Zigor Díazentzat

Getxoko Igeriketa Bolue Kirol Elkarteko Zigor Díaz igerilariak 400 metro estiloen Espainiako errekorra hautsi du 35-39 urte bitarteko kategorian. Faduran jokatutako Getxo Swim Camp masterrean ondu zuen aurretik berak zeukan errekorra. Díazek segundo 1 eta 55 ehunen hobetu zuen bere aurreko marka. 4'37"91 da marka berria. 36 urte ditu eta beste hiru urtez egon daiteke maila horretan. Bere erroka Estatuko errekorra berriro hauta izango da modalitate honetan.



### Virginia Díaz, hirugarren podiuma jarraian European

Raspas Arraun taldeko Virginia Díaz arraunlariak, Aina Cid Ampostako Klub Nautikoko bere lankidearekin batera, brontzezko domina lortu zuen joan den asteburuan Italian jokatutako Txapelketa-ko lemaizain gabeko 2ko proban. Hirugarren podiuma da jarraian bi arraunlariarentzat, 2019an eta 2020an lortutako urrezko eta zilarrezko dominen ostean, hurrenez hurren. Orain, Tokioko Olinpiar Jokoak prestatzeko eta domina berri bat lortzeko lan egin behar dute.



Argazkia: Espainiako Arraun Federazioa